



elkar-lan  
S. C O O P.

KOOPERATIBAK SUSTATZEKO ELKARTEA  
SOCIEDAD PARA LA PROMOCIÓN DE COOPERATIVAS

Entidad declarada de UTILIDAD PÚBLICA  
HERRI ONURAKO izaera emandakoa

Elkar-Lan, S. Coop.  
San Vicente, 8 - 9.º Izq. (Edif. Albia II)  
48001 BILBAO  
Tel.: 94 470 37 60  
Fax: 94 470 37 61  
e-mail: elkarlan@elkarlan.coop  
www.elkarlan.coop

3/2023 zirkularra

Bilbo, 2023ko urtarrilaren 12a

GAIA: **KOOPERATIBETAKO LANGILE MUGAGABEEN LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOAREN KAPITALIZAZIOA ETA GIZARTE SEGURANTZAREN HOBARIAK KOOPERATIBEK EGINDAKO ZENBAIT KONTRATAZOTARAKO.**

Adiskide agurgarria:

Atzo, urtarrilaren 11n, BOEn argitaratu da urtarrilaren 10eko 1/2023 Errege Lege Dekretua, Lan-kontratazioa sustatzeko eta artisten gizarte-babesa hobetzeko premiazko neurriei buruzkoa. Dekretuaren testu osoa gure web-orritik —[www.elkarlan.coop](http://www.elkarlan.coop)— jaits dezakezu.

Dekretu horretatik, honetan jarriko dugu arreta: kooperatibetako langile mugagabeentzako langabezia-prestazioaren kapitalizazioa eta kooperatibek egindako zenbait kontratazotarako Gizarte Segurantzak dituen hobarietan.

### **1. KOOPERATIBETAKO INOREN KONTURAKO LANGILE MUGAGABEEN LANGABEZIA-PRESTAZIOAREN KAPITALIZAZIOA**

Gizarte-ekonomiari buruzko martxoaren 29ko 5/2011 Legearen 10. artikuluko 1. apartatuko 1. arauan egindako aldatetari esker egin daiteke kapitalizazioa. Hor arautzen da langabezia-prestazioen kapitalizazioa, kooperatibetan bazkide gisa sartzen diren langileen kasuan.

Hain zuzen, langabezia-prestazioaren kasu berri hau gehitu da:

Kooperatiban lan-harreman mugagabearekin lan egiten duten eta kontribuzio-mailako langabezia-prestazioaren onuradun izateko baldintzak —langabezia-egoera legalean egoteko baldintza izan ezik— betetzen dituzten pertsonak, baldin eta kooperatiba-sozietate horretan bazkide langile edo lan-bazkide izan nahi badute.

Kasu horietan, langabezia-prestazioa eta kapitalizazioa aldi berean eskatuko dira, eta, prestazioa onartu eta kalkulatzeko, langabezia-egoera legalaren data hartuko da eskaeraren datatzat.

Kasu berri hori oso onuragarria izan daiteke kooperatibentzat eta kooperatiba bihurtzea erabakitzen duten merkataritza-sozietateentzat.

## **2. GIZARTE SEGURANTZAREN HOBARIAK KOOPERATIBEK EGINDAKO ZENBAIT KONTRATUTARAKO.**

a) Gizarte-ekonomiari buruzko martxoaren 29ko 5/2011 Legearen 9. artikulua aldatu da. Horren arabera, **langabezian dauden pertsonak**

- bazkide langile gisa edo
- lan-bazkide gisa

sartzen dituzten kooperatibek aukera izango dute Gizarte Segurantzako enpresa-kuotetan hobariak jasotzeko, lege ezartzen diren baldintzetan eta zenbatekoetan.

b) Gizarte-ekonomiari buruzko martxoaren 29ko 5/2011 Legearen 11. artikulua aldatu da, eta horren ondorioz:

Onartu egiten da kooperatiba-sozietateetako bazkide langileei edo lan-bazkideei lege ezartzen diren hobariak aplikatuko zaizkiela, baldin eta langabezian dauden pertsonak

- haurra jaiotzeagatik
- eta zaintzeagatik,
- bularreko haurraren zaintza erantzunkideagatik
- edo haurdunaldiko edo edoskitze naturaleko arriskuagatik

hobaridun ordezkapen-kontratuen bidez ordezkatzeko badituzte.

c) Lan-kontratazio mugagabea sustatzeko hobarietan —kontratu-erlaketak barne hartuta, 1/2023 Errege Lege Dekretu honetan aurreikusitako kasuetan— eta pertsonak kooperatiban bazkide langile edo lan-bazkide mugagabe gisa sartzea sustatzekoetan, onuradunak alta-egoeran edo horren pareko egoera batean izan behar du neurrien hartzailea, eta Gizarte Segurantzaren dagokion erregimenean kotizatze betebeharra egongo da, hiru urtez gutxienez, hobaria jaso duen kontratua, eraldaketa edo laneratzea hasten denetik.

d) Langile bat kontratatzeagatik edo kooperatiba-sozietate batean sartzeagatik arau honetan kotizazioari hobariak emateko aurreikusitako kasuetako bat baino gehiago betetzen badira aldi berean, hobari horietako bat soilik lortu ahal izango da, eta onuradunak aukeratu beharko du, langileari Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean alta ematen dionean edo datu-aldaketa egiten duenean.

Hobaria aukeratzeko, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak hura identifikatzeko eskatzen dituen datuak eman beharko dira.

Errege lege-dekretu honetan aurreikusitako hobariak, xede bera duten laguntza publikoko beste neurri batzuekin batera, ezin izango dute hobaria jasotzen duen kontratuari dagokion urteko soldata-kostuaren 100eko 60 gaintu. Enplegu-zentro bereziek kontratatutako desgaitasuna duten langileak salbuetsita egongo dira neurri horretatik, desgaitasuna duten pertsonak zentro horietan laneratzeko laguntzak eta dirulaguntzak arautzen dituen araudian ezarritakoa bete behar baita kasu horretan.

e) 10. artikuluan ezarritakoari jarraituz, kotizazioan hileko 366 euroko hobaria izateko eskubidea emango dute honako hauek, 2. apartatuan<sup>1</sup> adierazitako epealdian:

---

<sup>1</sup> 2. *Respecto de los incentivos a la contratación laboral, sus cuantías se establecen por cada contrato suscrito a tiempo completo.*

- Kooperatiba-sozietateetako bazkide langileak edo lan-bazkideak ordeztuko langabeei egiten zaizkien iraupen mugatuko kontratuek, zenbait kasu eta baldintzatan. Hona hemen:

a) 30 urtetik beherako gazte langabeei iraupen mugatuko kontratuak egitea, prestazio ekonomikoak jasotzen ari diren langileak ordeztuko.

- Haurdunaldiko arriskuagatik.
- Edoskitze naturaleko arriskuagatik.

Kasu horiek Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 186.-189. artikuluetan daude jasota.

b) 30 urtetik beherako gazte langabeei iraupen mugatuko kontratuak egitea, prestazio ekonomikoak jasotzen ari diren langileak ordeztuko.

- Haurra jaiotzeagatik eta zaintzeagatik.
- Bularreko haurraren zaintza erantzunkideagatik.

Kasu horiek Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 177.-185. artikuluetan daude jasota.

Aurreko a) eta b) idatz-zatietan aplika daitekeen hobaria bateragarria izango da Lan Autonomoaren Estatutuari buruzko uztailaren 11ko 20/2007 Legearen 38. artikuluan ezarritakoarekin<sup>2</sup>.

---

*En los supuestos de contratación a tiempo parcial, las citadas cuantías se reducirán proporcionalmente en función de la jornada establecida, sin que ésta pueda ser inferior, a efectos de la aplicación de los correspondientes incentivos, al 50 por ciento de la jornada a tiempo completo de una persona trabajadora comparable. A estos efectos, se entenderá por persona trabajadora a tiempo completo comparable lo establecido en el artículo 12.1 del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre.*

*A efectos de la aplicación del incentivo en el caso de bonificaciones de cuotas, se entenderá que el porcentaje del 50 por ciento a que hace referencia el párrafo anterior es el porcentaje comunicado por la empresa en el momento del alta, o como variación de datos, identificativo del tiempo de trabajo realizado por la persona trabajadora en cada uno de los días del correspondiente periodo de liquidación de cuotas. Cuando la jornada de trabajo, definida conforme a lo indicado en este párrafo, sea inferior al 50 por ciento de la jornada a tiempo completo de una persona trabajadora comparable, no resultará de aplicación ningún importe de bonificación de cuotas, teniéndose en cuenta dicho periodo como consumido para el cómputo del tiempo máximo de disfrute de la bonificación de cuotas.*

*El citado límite de duración mínima de la jornada a tiempo parcial no resultará de aplicación al colectivo de personas con discapacidad, como medida de adecuación del empleo a sus capacidades, ni tampoco en los supuestos de reducción de jornada previstos en el artículo 37.4, 6 y 8 del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, ni durante los periodos en los que las personas trabajadoras reduzcan su jornada de trabajo como consecuencia del ejercicio del derecho a la huelga*

**<sup>2</sup> Artículo 38. Bonificación de cuotas para trabajadores autónomos durante el descanso por nacimiento, adopción, guarda con fines de adopción, acogimiento, riesgo durante el embarazo o riesgo durante la lactancia natural.**

*Los trabajadores incluidos en el Régimen Especial de la Seguridad Social de los Trabajadores por Cuenta Propia o Autónomos o, como trabajadores por cuenta propia, en el grupo primero de cotización del Régimen Especial de la Seguridad Social de los Trabajadores del Mar, **incluidos los socios trabajadores o socios de trabajo de las sociedades cooperativas encuadrados en esos regímenes,** tendrán*

f) Hobariak ordeztutako langileen kotizazioan, haurra jaio eta zaintzeagatik, bularreko haurraren zaintza erantzunkideagatik, haurdunaldiko arriskuagatik edo edoskitze naturaleko arriskuagatik ordezkatzeko badituzte.

1. Prestazio ekonomikoak jaso bitartean haurra jaio eta zaintzeagatik, bularreko haurraren zaintza erantzunkideagatik, haurdunaldiko arriskuagatik edo edoskitze naturaleko arriskuagatik 17.1. a) eta b) artikuluko ordezkapen-kontratuen bidez ordeztutako inoren konturako langileen kotizazioan hileko 366 euroko hobaria aplikatuko da, 10. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Halaber, kooperatibetako bazkide langileen edo lan-bazkideen kotizazioari dagokionez, 17.1.c) artikuluan aipatzen diren langabeek

- haurra jaio eta zaintzeagatik,
- bularreko haurraren zaintza erantzunkideagatik,
- haurdunaldiko arriskuagatik
- edo edoskitze naturaleko arriskuagatik

ordezkatzeko badituzte hobaria duten ordezkapen-kontratuen bidez, hileko 366 euroko hobaria aplikatuko da Gizarte Segurantzako enpresa-kuotetan, kontzeptu guztietan, inoren konturako langileen Gizarte Segurantzako araubidean sartutako bazkideen kasuan.

3. 1. eta 2. apartatuetan adierazitako hobarien iraupena ordezkapen-kontratua eta dagokion prestazioa batera dauden epealdiarekin bat etorriko da.

g) Hobaria enpresan prestakuntza praktikoa egiten duten pertsonen kontratu mugagabea egiteagatik edo kooperatiban bazkide gisa sartzeagatik.

1. Enpresan prestakuntza praktikoa egiten duten pertsonen kontratu mugagabea eginez edo kooperatiban bazkide gisa sartuz gero, prestakuntza hori amaitzean edo egiten duten bitartean,

- kotizazioan hileko 138 euroko hobaria izateko eskubidea egongo da, 10. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Hobaria hiru urtez jasoko da gehienez, salbu eta kontratatutako langilea desgaitasuna badu; izan ere, kasu horretan, hobaria kontratuaren indarraldi osoan aplikatu ahal izango da.

---

*derecho, durante los periodos de descanso por nacimiento, adopción, guarda con fines de adopción, acogimiento, riesgo durante el embarazo o riesgo durante la lactancia natural, a una bonificación del 100 por cien de la cuota por contingencias comunes resultante de aplicar a la base media que tuviera el trabajador en los doce meses anteriores a la fecha en la que inicie esta bonificación, el tipo de cotización para contingencias comunes vigente en cada momento, excluido el correspondiente a la incapacidad temporal derivada de dichas contingencias.*

*En el caso de que el trabajador lleve menos de 12 meses de alta continuada en el Régimen Especial de la Seguridad Social de Trabajadores por Cuenta Propia o Autónomos, la base media de cotización se calculará desde la última fecha de alta, siendo el resultado de multiplicar por 30 la cuantía resultante de dividir la suma de las bases de cotización entre el número de días de alta del periodo de alta continuada.*

*A efectos del cálculo de esta bonificación, la base media a la que se refiere este artículo se calculará con las bases de cotización, provisionales o definitivas, existentes en el momento de la aplicación inicial de la bonificación, sin que la cuantía de la bonificación sea objeto de modificación como consecuencia de la regularización de las bases de cotización provisionales a la que se refiere el artículo 308.1.c) del texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social*

2. Pertsona kooperatiban bazkide gisa sartuz gero, hobaria kasu honetan soilik aplikatuko da: kooperatibak inoren konturako langileen araubidea aukeratzen badu Gizarte Segurantzari.

h) Hobariak langileak kooperatibetan bazkide langile edo lan-bazkide gisa sartzeagatik.

1. Kooperatibetan langabeak bazkide langile edo lan bazkide gisa sartuz gero,

- kotizazioan hileko 73 euroko hobaria izateko eskubidea egongo da, 10. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Hobaria hiru urtez jasoko da, kooperatibak inoren konturako langileen araubidea aukeratzen badu Gizarte Segurantzari.

2. Kooperatibetan bazkide langile edo lan-bazkide gisa sartzen diren pertsonak 30 urtetik beherako gazteak edo % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna aitortuta duten 35 urtetik beherako pertsonak badira,

- hobaria hileko 147 eurokoa izango da lehen urtean, eta hileko 73 eurokoa, gainerako bi urteetan.

### **3. ARAUDI HAU INDARREAN SARTZEA**

2023ko irailaren 1ean sartuko da indarrean, salbuespen hauek izan ezik:

a) 2023ko urtarrilaren 12an, bigarren<sup>3</sup>, hamabigarren<sup>4</sup>, hamahirugarren<sup>5</sup>, hamalagarren<sup>6</sup>, hamabosgarren<sup>7</sup>, hamaseigarren<sup>8</sup> eta hamazazpigarren<sup>9</sup> xedapen gehigarriak, eta azken

---

<sup>3</sup> Disposición adicional segunda. Reintegro de subvenciones y beneficios de seguridad social en materia de contratación y empleo en supuestos de deslocalización empresarial

<sup>4</sup> Disposición adicional duodécima. Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

<sup>5</sup> Disposición adicional decimotercera. Grupo para el estudio e impulso de medidas de reconocimiento de la intermitencia en el ámbito laboral y de la Seguridad Social de los artistas y trabajadores autónomos de la cultura.

<sup>6</sup> Disposición adicional decimocuarta. Comisión para impulsar la evaluación y el reconocimiento de determinadas enfermedades profesionales derivadas de las actividades específicas en el sector cultural.

<sup>7</sup> Disposición adicional decimoquinta. Beneficios fiscales aplicables a la celebración de la Bienal Manifesta 15 Barcelona

<sup>8</sup> Disposición adicional decimosexta. Tipo del recargo de equivalencia en el Impuesto sobre el Valor Añadido

<sup>9</sup> Disposición adicional decimoséptima. Actualización de referencias normativas

xedapenetako laugarrena<sup>10</sup> —bat, bi, hiru, lau, bost eta hamahiru apartatuak—, bosgarrena<sup>11</sup>, seigarrena<sup>12</sup>, zortzigarrena<sup>13</sup> eta bederatzigarrena<sup>14</sup>.

b) **2023ko urtarrilaren 1ean**, uztailaren 11ko 20/2007 Legearen 36. artikulua, azken xedapenetako bigarreneko Bat apartatuaren idazkeran.

c) **2023ko apirilaren 1ean**:

- Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 153 ter<sup>15</sup>, 249 quater<sup>16</sup>, 305.2.m)<sup>17</sup>, 310 bis<sup>18</sup>, 363.5<sup>19</sup> artikulua, azken xedapenetako laugarrenean aldatu edo gehitu direnak.
- Azken xedapenetako laugarrenaren Hamar apartatuta, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginari 313 bis artikulua<sup>20</sup> gehitzen diona.

Zalantzarik baduzu, zure esanetara gaude.

Fco. Javier Sanz Santaolalla  
Zuzendaria

---

<sup>10</sup> Disposición final cuarta. Modificación del texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social, aprobado por el Real Decreto Legislativo 8/2015, de 30 de octubre.

<sup>11</sup> Disposición final quinta. Modificación del Real Decreto-ley 11/2020, de 31 de marzo, por el que se adoptan medidas urgentes complementarias en el ámbito social y económico para hacer frente al COVID-19

<sup>12</sup> Disposición final sexta. Modificación del Real Decreto-ley 20/2022, de 27 de diciembre, de medidas de respuesta a las consecuencias económicas y sociales de la Guerra de Ucrania y de apoyo a la reconstrucción de la isla de La Palma y a otras situaciones de vulnerabilidad.

<sup>13</sup> Disposición final octava. Modificación del Real Decreto 625/1985, de 2 de abril, por el que se desarrolla la Ley 31/1984, de 2 de agosto, de Protección por Desempleo.

<sup>14</sup> Disposición final novena. Modificación del Real Decreto 1484/2012, de 29 de octubre, sobre las aportaciones económicas a realizar por las empresas con beneficios que realicen despidos colectivos que afecten a trabajadores de cincuenta o más años

<sup>15</sup> Artículo 153 ter. Cotización de las personas pensionistas de jubilación cuando realicen actividades artísticas

<sup>16</sup> Artículo 249 quater. Compatibilidad de la pensión de jubilación con la actividad artística.

<sup>17</sup> m) Quienes ejerzan por cuenta propia cualquiera de las actividades artísticas a que se refiere el artículo 249 quater.1.»

<sup>18</sup> «Artículo 310 bis. Cotización de los perceptores de pensión de jubilación cuando realicen actividades artísticas

<sup>19</sup> Artículo 363. Beneficiarios (de la Invalidez no contributiva).»

<sup>20</sup> Artículo 313 bis. Cotización de los artistas con bajos ingresos integrados en el Régimen Especial de la Seguridad Social de los Trabajadores por Cuenta Propia o Autónomos

